



grupoUrgatzi



---

# KODE ETIKOA

---

<b>ZUZENDARITZAREN MEZUA</b>	<b>2</b>
<b>1. HELBURUA</b>	<b>3</b>
<b>2. EZARPENAREN ARLOA</b>	<b>3</b>
<b>3. ZEREGINA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK</b>	<b>3</b>
<b>4. JOKABIDE ETIKOAREN PRINTZIOAK</b>	<b>4</b>
<b>5. JARDUTEKO PRINTZIOAK</b>	<b>10</b>
<b>6. PROGRAMA SOZIALAK ETA INGURUMENENAK</b>	<b>10</b>
<b>7. BETETZEA ETA KOMUNIKAZIOA</b>	<b>10</b>
<b>8. ETIKAREN ETA PORTAERAREN BATZORDEA</b>	<b>11</b>

## ZUZENDARITZAREN MEZUA

*Duela 25 urte baino gehiago Urgatzi Taldearen enpresa-jarduerarekin hasi ginenetik, gure balioen bidez laguntza-kalitate bikaineko zerbitzuak eskaintzeko konpromisoa garatu dugu, portaera etikoaren printzipioak errespetatuz beti.*

*Urgatzi Taldean gure lana gizarteari geure egiten ditugun balioak eskaintzeko modu gisa ulertzen dugu, hala nola konpromisoa, erantzukizuna, zintzotasuna eta etika profesionala. Bereziki harro sentitu gara beti balio horiekin eta "Urgatzi" markaren parte dira.*

*Enpresa modura proiektu jasagarriak, berritzaileak eta kalitatezkoak garatzeko xedea izan dugu beti, bizitzako ibilbidean zehar laguntzen diegun pertsona guztiengan arreta jarritz. Helburu hori gure lantaldearen esfortzu eta inplikazioari esker lortzen dugu, eta gure bezeroek eta enpresa hornitzaileek gure enpresaren proiektuan duten konfiantzari esker.*

*Gure portaera-kodea aurkeztu nahi dizuegu, gure enpresaren kulturaren oinarria diren portaera-arauak eskaintzeko. Ezagutzera, hori jarraitzea eta premisa horien arabera jardutera animatzen zaituztegu, gure laneko ingurunean ahalik eta zintzotasun eta osotasun gehien izanez, eta, batez ere, gure interes-taldeen erakunde etikoa, arduratsua eta gizartearekiko balioa duena izaten jarraitzeko.*

### 1. HELBURUA



Portaera-kodearen helburua Urgatzi Taldeak enpresako etikaren printzipioekin duen konpromisoa jasotzea da, Urgatzi Taldearen zuzendaritzak gure enpresa-proiektuaren garapena gure interes-talde guztientzako portaera etikoa eta zintzoa izan dadin lortzeko beharrezkoak ikusten dituen portaera-arauak eta jarduketa profesional eta pertsonalerako portaerak ezarriz.

Enpresako portaera etikoarekin dugun konpromisoa Nazio batuen Mundu Hitzarmenaren bidez berresten dugu. Hitzarmenak giza eskubideak, laneko arauak, ingurumena eta ustelkeriaren aurkako borroka jorratzen ditu. Gure enpresaren garapenean geure egiten ditugun printzipioak dira, eta gure jarduera guztien bidez hedatuko ditugu, gure interes-talde guztientzat.

## 2. EZARPENAREN ARLOA

Portaera-kodea Urgatzi Taldearen jarduketa-arlo guztietara aplika daiteke, eta horietan lan egiten duten langile guztiak barne hartzen ditu, bai eta enpresaren administrazio-organo guztiak ere.

Urgatzi Taldea parte den gainerako sozietateetan kode horrekin bat egiten duten portaera-jarraibideak hartzea sustatuko da.

Urgatzi Taldeak bere edukia bezeroen, enpresa hornitzaileen, erabiltzaileen eta/edo berarekin lan egiten duen beste interes taldeen artean dibulgatzeko konpromisoa hartzen du, edukia eta konpromisoak ezagutu ditzaten.

## 3. ZEREGINA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

### Gure zeregina

Urgatzi taldearen **zeregina** proiektu berritzaile eta jasangarriak garatzea da, mendekotasun-, desgaitasun-, babesgabetasun- edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eta haien senideen gizarteratzea, autonomia eta ongizate psikosoziala sustatzeko zerbitzuak planifikatu, eskaini eta kudeatzeko, bai eta funtzionalki independenteak diren, baina arlo emozionalean eta/edo parte-hartze sozialean laguntza behar duten pertsonena ere.

### Gure ikuspegia

Urgatzi taldearen **ikuspegia** da zerbitzuak primerako baliabide bihurtzea pertsonen bizi-zikloan zehar sortzen diren zailtasunei erantzuteko. Horretarako, autonomia eta parte-hartze kuotarik altuenak sustatzen ditu, errespetuzko tratua, tratu duinaren eta banan banakoaren bidez.

Bai eskaintzen ditugun zerbitzuen erabiltzaileen, bai garatzen dituzten profesionalen beharrei aurre hartzeko egiten dugu lan. Hala, beharretara egokitutako erantzunak eman ahal izateko, ezagutza eta sinergiak sortuz inguruko beste erakunde batzuekin, bai erakundeen artean bai sektorearen barruan.

### Gure balioak

- KONPROMISOA
- ESPERIENTZIA ETA PROFESIONALITASUNA
- BEZEROENTZAKO ORIENTAZIOA
- ERANTZUKIZUN SOZIALA ETA INGURUMENEOA
- BERRIKUNTZA
- ETIKA
- SAREKO LANA
- GARDENTASUNA ETA ZINTZOTASUNA

## 4. JOKABIDE ETIKOAREN PRINTZPIOAK

- Indarrean dagoen legedia errespetatzen dugu, eta gure jarduketa-eremuetan aplikagarriak diren arau eta lege guztiak zorrotz betetzen ditugu.
- Gardentasuna dugu kudeaketan, gure kudeaketaren egiazko informazioa eta kontrastatua hedatuz, eta gure jarduera profesionalaren arloan lehiakortasuna errespetatzen duten jarduketak eginez. Gure jarduera guztiek kanpoko kudeaketaren eta gobernantza onaren auditoriak izaten dituzte.
- Gure jarduerak garapen arduratsua dute. Gure helburuak eta gure interes-taldeenak garatzeko beharrezko gaitasunak ditugu.
- Giza eskubideak errespetatzen ditugu. Giza eskubideen adierazpenean jasota dauden giza eskubideekiko eta askatasun publikoekiko errespetu handia dugu gure enpresako jardunean.
- Pertsonetikiko konpromisoa dugu. Pertsonak, eta beraz gizartea, dira gure ekintza guztien ardatza. Haien berezko balioa aitortzen dugu, haien muga eta/edo gaitasunetatik harago. Egindako ekintza oro baloratu eta bahetu egin behar da jarduketa egokiaren eta ondo barematutakoaren irizpideen pean. Gure esku-hartzeak arduratsuak dira eta fideltasunaren eta pertsonetikiko errespetuaren irizpideekin egiten dira. Gure jarduketaren erdigunean daude beti.
- Konpromisoa dugu gure bezeroekin. Haien beharrak hauteman eta asebetetzeko jarrera dugu etengabe, jokabide etikoaren ikuspegitik.
- Segurtasuna eta osasuna. Langile guztiei lan-baldintza seguruak eskaintzen dizkiegu prebentzio-politikak garatuz, eta segurtasun maila altua eskatzen diegu gure jarduera guztietan, baita gure hornitzaileei eta azpikontratutako enpresei ere.
- Lan-eskubideak eta negoziazio kolektiboa errespetatzen ditugu, langileak ordezkatzeko modua baitira. Halaber, lan-baldintza onak eskaintzen ditugu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak aplikatzen ditugu beti.
- Ingurumena errespetatzen dugu ekonomia zirkularreko estrategiak garatuz, karbono-aztarna murriztuz eta baliabideen kudeaketa arduratsua eginez.
- Eskaintzen ditugun zerbitzuen berrikuntza sustatzen dugu, gizarteak dituen eskariei erantzuteko, eta gure bezeroen barneko zein kanpoko gogobetetasuna bilatzen dugu beti.

## 5. JARDUTEKO PRINTZPIOAK

### AUKERA BERDINTASUNA

Urgatzi Taldeak konpromisoa erakusten du emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuneko politikak ezarri eta garatuz, sexuagatik zuzenean edo zeharka ez diskriminatuz eta gure enpresaren barruan berdintasun erreala lortzeko neurriak sustatuz, hala, emakume eta gizonen arteko aukeren berdintasuna da gure Giza Baliabideetako politikaren printzipio estrategikoetako bat.

### INTEGRAZIOA ETA DISKRIMINAZIOARIK EZA

Urgatzi Taldeak integrazio-politikak garatuko ditu bere langile guztien kultur, gizarte eta belaunaldien dibertsitatearekin.

Ez da inolaz ere arraza, sexu, ideologia, erlijioa, nazionalitate, hizkuntza, adina, afiliazio politiko edo sindikala edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik onartuko.

### PERTSONENGANAKO ERRESPETUA

Urgatzi taldeak errespetuz eta duintasunez tratatuko ditu pertsona guztiak. Urgatzi Taldearen giza kapitala funtsezkoa da zerbitzuak eskaintzeko ez ezik, baita gure balioak transmititzeko ere. Hala, balio erantsia sortzen dugu horietan.

Urgatzi Taldeko langile guztiek erabiltzaileak eta haien laguntzaileak errespetuz eta duintasunez tratatzeko betebeharra dute, haien postua edozein dela ere, eta laneko giro errespetuzkoa eta atsegina lortzeko lan egin behar dute.

### **GARAPEN PROFESIONALA**

Urgatzi Taldeko langile guztiek haien ibilbide profesionala garatzeko aukerak izango dituzte, merituan, gaitasunean eta zeregin profesionalen jardueran oinarritutako irizpide objektiboen bidez, gaitasun profesionalaren arabera ezarritako mugekin betiere.

Horretarako, prestakuntza-plan sendoak daude ikaskuntza eta garapen profesional eta pertsonalerako, eta nahi duten langile guztiek hartu dezakete parte.

### **LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Urgatzi Taldearentzat laneko segurtasuna eta osasuna funtsezko printzipioa da jarduera profesionala garatzeko, eta, horretarako, prebentzio-politika arriskuak ekiditera eta jardueraren planifikaziotik ekidin ezin dien horiek ebaluatzerara dago bideratuta.

Langile guztiek arlo horretako arauak zorrotz bete behar dituzte eta arriskua duten jarduerak egiteko erabili behar diren ekipoak eta materialak arduraz zaindu behar dituzte. Prebentzio-kultura ezin da negoziatu, ongizatearen ezinbesteko elementua baita, eta helburua langileen artean dibulгатzea da, prebentzio-arloko arauak betetzea sustatuz.

### **HAURREN LANAREN ABOLIZIOA**

Urgatzi Taldeak ez du haurren lana erabiliko eta ez du bere jardueran haurrek egindako produktu edo zerbitzurik sartuko. Halaber, hornitzaileek LNEk adingabeen lanaren inguruan dituen xedapen guztiak betetzen dituztela ziurtatuko du.

### **BEHARTUTAKO LANAREKIN AMAITZEA**

Urgatzi Taldeak ez du behartutako lanik edo bortxaren pean egindakorik gauzatuko, eta uneoro ekidingo du halako jarduketak egiteagatik susmagarriak diren hornitzaileak, kontratistak edo kolaboratzaileak kontratatzea.

### **KONFIDENTZIALTASUNA**

Urgatzi Taldea jakitun da jasotzen duen informazioa sentibera dela kasu askotan. Hortaz, Urgatzi Taldearen jabetzakoa den informazio oro edo tratatzeko enkargatu dioten oro erreserbatua eta konfidentziala izango da, eta haien jarduera garatzerakoan informazio horretara sarbidea duten langile guztiek konfidentzialtasun zorrotza bermatu beharko dute. Betebehar hori laneko erlazioa amaitzen ere bete beharko da.

Informaziora sarbidea duten pertsona guztiek baimendutako funtzioetarako soilik erabiliko dute eta inoiz ez baimenik ez duten jardueretarako edo Urgatzi Taldearen interesekoak ez diren jardueretarako, legeak aginduta horretarako betebeharra dagoen kasuetan edo hedatzea baimentzen den kasuetan izan ezik.

Hornitzaileekin, bezeroekin edo lehiakideekin duen merkataritza-erlazioa ere konfidentzialtasun-arau horien menpe egongo da. Langileek ekidin egin beharko dute merkataritza-informazio esanguratsua eta profesionalen ezagutzaren bidez sortutakoa lehiakideei helaraztea.

### **AKTIBOEN ERABILERA**

Urgatzi Taldeak langile guztien zerbitzura jartzen ditu jarduera profesionala behar bezala gauzatzeko baliabide guztiak, eta konpromisoa hartzen du babeserako beharrezkoak diren bitarteko eta material guztiak eskaintzeko. Material horiek behar bezala zaindu behar dira eta esleitutako helburuetarako soilik erabili.

Ekipo, sistema eta programa informatiko guztiak, merkatuko programak salbu, Urgatzi Taldearen jabetza dira, bai eta proiektu teknikoak, ikerketak, txostenak edo jarduera profesionaletik sortutako edo langileek erabilitako dokumentu oro ere, euskarria edozein dela ere.

Urgatzi taldeak beretzat gordetzen du langileen eskura dauden ekipoak eta sistemak aldizka monitorizatu eta aztertze eskubidea, pertsonen banakako eskubideen inguruko legediak ezartzen duenaren barruan.

## **INTERES GATAZKAK**

Urgatzi Taldeko langileek leialtasunez eta fede onez egin behar dute haien jarduera profesionala. Urgatzi Taldeak ulertzen du langileek interes pertsonalak, familiakoak, finantzarioak edo bestelakoak izan ditzaketela, baina enpresarekin interes-gatazkarik izan gabe garatu behar dira, Urgatzi Taldeak enpresaren interesak babesteko premisaren pean jardungo baitu beti. Beraz, interes pertsonalak garatzerakoan erabat errespetatu beharko da langileak ezarrita duen kontratuzko esparrua.

## **OSPE KORPORATIBOA**

Urgatzi Taldeak hainbat jarduketa-arlotan gauzatzen du bere jarduera, eta guztiak zerbitzu sozio-laguntzaileak eskaintzera daude bideratuta, beraz, gizartean dugun eragina nabaria da. Gure garapen korporatiboa da gizarteak konpromiso etiko sendoa duen enpresa gisa ikus gaitzan lortzeko gakoa, eta, horretarako, gure langile guztien konpromisoa behar dugu, eta, batez ere, zuzendaritza taldearena, bera baita taldearen irudia enpresak zehaztutako helburuetara bideratu eta horren inguruan pentsatzeko ardura duena.

## **GOBERNU KORPORATIBOA**

Urgatzi Taldeak konpromisoa du bere enpresaren ekintza eta plan estrategikoetatik eratorritako erabakiak gizartearen barruan, eta batez ere interes-talde guztientzat, balio jasangarria lortzera bideratzeko. Horretarako, kudeaketaren gardentasuna, jardueraren praktika onak eta ingurumenarekiko errespetua eskaintzen ditu, indarrean dagoen araudia betetzen du beti eta Gobernu Korporatiboaren gomendioak bilatzen ditu.

## **JABETZA ADIMENDUNA**

Urgatzi Taldeak edozein material, dokumentu, asmakizun, gailu eta langileek egin edo sortzen duten antzeko produkturen bat eta marka, patente, egile-eskubide edo bestelako jabetza adimendun edo industrial bat duen produkturen bat erabili eta ustiatzeko eskubide guztiak izango ditu. Beraz, legeak ezarritako terminoetan babestuko ditu.

## **GARDENTASUNA INFORMAZIO FINANTZARIOAN**

Erregistro, idazpen kontulari eta finantza-transakzio guztiek erakundearen egoera finantzarioa islatuko dute eta gure eragiketen emaitza izango dira.

Informazio-finantzarioa egiteko kontularitza-araudiak zorrotz eta zehaztasunez jarraituko dira, lortutako informazioa zehatza, egiazkoa eta fidagarria dela ziurtatu eta legezko baldintza galdagarri guztiak

betetzen dituela bermatzeko. Horretarako, Urgatzi taldeak kanpoko kontrolak egingo ditu urtero hori berresteko.

Txostena egiten duten langileek fiskalitatearen eta finantzen inguruko araudi eguneratuak ezagutu beharko dituzte, eta zorrotz bete beharko dituzte horiek.

### **INETERES TALDEEKIKO GARDENTASUNA**

Urgatzi Taldea beti ahaleginduko da lankidetzan esparru gardena ezartzen interes-talde guztiekin, bien helburuak lortzea errazteko, betiere legezko esparruaren barruan.

### **HARREMANA BEZEROEKIN**

Urgatzi Taldeak bere gain hartzen du gure bezeroei kalitaterik goreneko zerbitzuak eskaintzeko konpromisoa, eta gure printzipio eta balioen arabera jarduten du beti, aitortua eta ezagut daitekeena izateko helburuz. Hala, gure bezeroen eskura jartzen ditu zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak. Urgatzi taldeak ziurtatutako kalitatea kudeatzeko sistemekin jarduten du eta zerbitzu guztiei aplikatzen die. Halaber, gure bezero eta kolaboratzaile guztien eskura jartzen dugu gure zerbitzuetan ahalik eta konfiantzarik handiena lortzeko ahalegina.

### **ERABILTZAIILEEN ARRETA**

Urgatzi Taldearen zereginaren barruan sartzen da hartzaileei zerbitzu bikainak eskaintzea, eta, horretarako, zerbitzuak eskaintzeko gure kode etikoaren printzipioak bete behar ditugula ulertzen dugu. Hori hala izan dadin, pertsonan eta bere bizi-historian oinarritzen dugu arreta. Bere ezaugarriak aitortu eta errespetatzen ditugu. Errespetuzko jokabidea eta jokabide inpartziala dugu. Erabiltzaileen independentzia eta hazkunde pertsonala sustatzen ditugu, eta gizartearen barruan duten bizi-prozesuan laguntzen diegu.

### **HARREMANA BEZEROEKIN**

Urgatzi Taldeak bere ohiko negozio-bazkideekin konfiantzan, gardentasunean eta lankidetzan oinarritutako erlazioa ezartzen du, indarrean dagoen legedia errespetatuz, eta betiere legediak lehiaren defentsan ezarritako mugen barruan.

### **HARREMANA HORNITZAILEEKIN**

Urgatzi Taldeak objektibotasunaren, inpartzialtasunaren eta fidagarritasunaren irizpideetan oinarritutako hautaketa-politika du hornitzaileentzat, eta kalitatearen, kostuaren eta jasagarritasunaren irizpideak aplikatzen ditu beti. Urgatzi Taldeak kudeaketaren printzipio eta balio berberak dituzten hornitzaileak baloratuko ditu beti, eta, beraz, gure balio sozialekin, etikoekin, ingurumenekoekin eta segurtasun eta osasunekoekin bat egiten dutenak.

### **USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO NEURRIAK**

Urgatzi Taldeak uste osoa du Nazio Batuen Ituna sinatzerakoan lortutako konpromisoan, beraz, ez dago ados jarduketa edo jokabide ez etikoen bidez onuraren bat lortzeko hirugarrengoen borondatean eragitearekin.



Hala, guztiz debekatuta dago erakundeko pertsona batek ordainketak, eroskeriak, opariak, hobariak edo Urgatzi Taldeak legearen barruan ezarritako ordainsaririk kanpo dagoen edozein ordain jaso edo ematea, kontratuak, esleipenak edo abantailak lortzeko norberaren edo enpresaren onurarako.

Halaber, langileek ezingo dituzte zuzenean edo zeharka ordainak, dirua, ondasunak edo antzekoak jaso Urgatzi Taldeko zerbitzuetako erabiltzaileen partetik.

## **OPARIAK ETA KORTESIAK**

Guztiz debekatuta dago bezeroek eta erabiltzaileek estalitako eroskeria izan daitezkeen opari edo kortesiak jasotzea.

Nolanahi ere, ezingo dira Urgatzi Taldea osatzen duten pertsonen erabaki objektiboak jasotzeko gaitasuna zalantzan jartzen duten eta bezeroarekin dagoen erlazio komertzial, profesional edo administratiboan eragin dezaketen opariak edo kortesiak jaso.

Era berean, Urgatzi Taldeko pertsonak ezingo dute zuzenean edo zeharka opari, kortesia edo edonolako mesederik eskaini kontratuak edo zerbitzuak legez kanpo lortzeko.

Opariak edo kortesiak soilik onartuko dira:

- Sustapeneko edo publizitateko objektuak direnean eta merkataritza-erlazioen logikaren barruan sartzen direnean eta logo korporatiboa daramatenean.
- Hartzaileak autoritate publikoak edo funtzio publikoak dituzten pertsonak ez direnean, kortesia profesionalaren barruan sartzen diren protokolozko objektuen kasuan salbu.
- Balio eskasa dutenean eta Urgatzi Taldearen ospe edo irudiarekin gatazkarik sortzen ez dutenean.

Irizpide horiek betetzen ez dituzten opariak edo kortesiak errefusatu edo itzuli egin behar dira. Zalantzarik izanez gero, Urgatzi taldeko etika eta portaeraren batzordeari kontsultatuko zaio.

## **DOHAINTZAK ETA BABESA**

Urgatzi Taldeak ezarrita duen izaera sozial eta/edo ingurumeneko programaren barruan ez dauden dohaintzak eta babesak debekatuta daude. Dohaintza horiek ez dira inolaz ere ezkutuko eroskeria gisa egin behar.

Dohaintzak eta babesak egiteko etikaren eta portaeraren batzordeak onartu behar ditu aurretik. Dohaintza eta babes horiek baldintza hauek bete behar dituzte beti:

- Urgatzi markari ekarpena egin behar diote eta bat egingo dute enpresaren erantzukizun sozial eta ingurumenekoaren estrategia-ildoekin.
- Ezingo dute inolaz ere merkataritzako erlazioetan, profesionaletan, administratiboetan edo Urgatzi Taldearen edozein negozio-erabakitan eragin, ezta taldearen parte den edozein pertsonaren interes pribatuak ase ere.
- Aitortutako ospea duten erakundeei emango zaizkie eta helburu sozialetarako/ingurumenerako, betiere jarduketa txarrik ez badago haien partetik.

## **DATU PERTSONALEN BABESA**

Urgatzi Taldeak datu pertsonalen babes-sistema du arlo horretako legezko araudi guztia betetzeko; beraz, datu pertsonala modu egoki eta legezkoan tratatzeko konpromisoa du.

Urgatzi taldeko langile guztiek nazioarteko lege eta hitzarmenek ezarritako datu pertsonalen babeserako araudiak beteko dituzte.



## 6. PROGRAMA SOZIALAK ETA INGURUMENEKOAK

### ERANTZUKIZUN SOZIALA

Urgatzi Taldeak eragin sozial handia duen enpresa modura erantzukizun soziala garatu eta indartzeko ekintzak ezartzen ditu ildo estrategikoen barruan. Horretarako, Urgatzi Taldeak “Bizitza Gozatuz” programa soziala garatzen du, eta horren bitartez, Urgatzi Taldeak izaera sozialeko ekintzak artikulatzen ditu, osasuna sustatzeko jardueretara, kolektibo zaugarrienen sentsibilizaziora, berdintasunaren sustapenera eta gure interes-taldekiko jardueretara bideratuz.

### INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

Gure enpresa-jarduera ingurumen-prozesu jasagarrietan garatzen dugu, eta, horretarako, Urgatzi taldeak, Planeta Berdea programaren bidez, sentsibilizaziorako, prestakuntzarako, ekonomia zirkularrerako eta ingurumeneko kutsadura murrizteko ekintzak garatzen ditu, karbono-aztarnaren eta baliabideen kudeaketaren gainean jardunez.

## 7. BETETZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Jokabidearen kode etikoa derrigorrez bete behar dute Urgatzi Taldearen parte diren pertsona guztiek. Enpresara sartzen diren langile berriei jakinaraziko zaie kodea derrigorrez bete behar dutela.

Urgatzi taldeak langile guztiei emango die kodearen berri, hornitzaileei, kontratistei eta/edo kolaboratzaileei barne.

Zuzendaritzako kideek eta goi karguak dituztenek inplikazio oso altua izan beharko dute kode hau betetzeko, eredugarriak izan beharko dute eta ezingo dute onartu kodean jasotzen diren arauak urratzea edo jokabide edo portaera ez etikoak izatea.

Urgatzi Taldeko langile guztiek betebeharra dute Urgatzi taldearen legeak, arauak, printzipioak edo balioak hausten dituzten portaeren berri emateko, fede onez, kodean ezarrita dauden bitartekoen bidez. Salaketa horiek jasoko dituen organoak pertsonaren konfidentzialtasuna eta anonimotasuna babesteko konpromisoa du.

Komunikazio-bidea ezarriko da kode hauetan ageri diren arauak betetzen ez badira salaketa jartzeko, bide hauen bitartez:

- Posta elektronikoa: [canaleticayconducta@grupourgatzi.eus](mailto:canaleticayconducta@grupourgatzi.eus)
- Posta bidez enpresaren egoitza sozialera igorrita: Areetako Etorbidea 2B, 3 esk., Areeto-Getxo. Bizkaia 48930.

## 8. ETIKAREN ETA PORTAERAREN BATZORDEA

Kodearen, beren printzipioen eta balioen jarraipena egiteko, edo berau interpretatzeko eta zalantzak argitu ahal izateko etikaren eta portaeraren batzordea sortuko da.

Batzordea enpresaren goi zuzendaritzako kideek, arlo juridikoetako zuzendaritzako kideek eta beste arloetako zuzendaritzetako batek osatuko dute modu egonkorrean. Arloetako zuzendaritzak txandakatu egingo dira urtero.

Batzordea hiru hilean behin bilduko da eta nahikoa autoritate eta baliabide izango ditu portaera-kode honetan ezarritako araudien balizko arau-hausteak hauteman eta prebenitzeko egokiak izan daitezkeen eta hartzen diren kontrol-neurri eraginkorrak ezartzeko eta betearazteko, bai eta aplikagarriak diren bestelako legezko arauak ere.

Horretarako, batzordeak adituen aholkularitza izan dezake, bai barnekoena, bai kanpokoena, batzordeak beharrezkoak ikusten dituen hainbat kontu interpretatzeko.

Batzordearen funtzioen artean daude:

- Egindako salaketak aztertu eta ikertzea.
- Kodearen inguruan egon daitezkeen zalantzen kontsultei erantzutea.